



Bizkaiko
Haurrentzako
II. Plana

2008-2011



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Edizioa: Bizkaiko Foru Aldundia. Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila. Departamento de Acción Social
Ugasko 3, 2ª Planta.
48014 BILBAO

Moldiztegia: Gráficas Munguia

Diseinua: Logaritmo

ISBN: 84-xxxx-xxx-x


Lege Gordailua: BI- xxxx-xx

I. KAPITULUA	AURKEZPENA	5
II. KAPITULUA	BIZKAIKO HAURRENTZAKO I. PLANAREN EBALUAZIOA (1999-2004)	9
III. KAPITULUA	BEHARREN EBALUAZIOAREN AZTERKETA	13
	1. Metodologia	15
	2. Beharren ebaluazioaren emaitzak	16
	A. Aukerak	16
	B. Sendolekuak	17
	C. Mehatxuak	17
	D. Ahuleziak	18
IV. KAPITULUA	PLANAREN LERRO ESTRATEGIKOAK	21
V. KAPITULUA	PLANAREN GARAPENA	25
	1. Helburu orokorra	28
	2. Helburu orokorra	29
	3. Helburu orokorra	31
	4. Helburu orokorra	33
	5. Helburu orokorra	34
	6. Helburu orokorra	36
	7. Helburu orokorra	37
	8. Helburu orokorra	39
VI. KAPITULUA	PLANAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	41



I. kapitulua

Aurkezpena



Esku hartzeko arlokako planak gizarte-politikak ordenatzeko funtsezko tresnak dira. Familiaren eta Haurren esparruan beharrak asko aldatu dira azken hamarkadan; profil berriak agertu dira nola familia-taldeetan (bereziki immigrazioagatik, baina baita familiako egitura berrien eraginagatik, guraso bakarregatik... ere) hala haur eta nerabeetan (inor gabeko atzerritar adingabeak, jarreran arazo larriak dituzten nerabeak...). Errealitate berri hauen ondorioz, gizarte-politikek azkar eta modu eraginkorrean erantzuteko gaitasuna behar dute, horien xede diren biztanleen beharrak aldatzen ari baitira eta behar horiek estali beharra baitago.

Haurrentzako I. Plana 1999-2004ri esker, Familia eta Haurren zerbitzuak garatu egin dira eta oso modu positiboan ebaluatu da garapena. Zerbitzuen egiturak eguneratu dira, eta jarduerira-irizpideak eta lerro handiak landu dira, esku hartze sistema oinarri sendoen gainean kokatu ahal izateko. Lorpenak bezain garrantzitsuak izan da Planari 2006an egindako ebaluazioan argi hauteman izana lortu gabeko alderdiak; ondorioz, alderdi horiek Haurrentzako II. Plan honen abiapuntu izango dira, nahitaez.


Haurrentzako II. Plana 2008-2011 aurreko planaren ebaluaziotik abiatu da, baina plan hau egiteko bi jarduera osagarri ere egin dira. Batetik, berariazko ebaluazioa egin da beharren analisia eguneratu ahal izateko eta artatu behar zen biztanleriaren, zerbitzuen eta parte-hartze prozesuen beharrak aztertu dira. Erabilitako metodologiari dagokionez, elkarrizketak egin zitzaizkien maila desberdinetako kudeaketa-arduradunei, eztabaida-taldeak garatu ziren talde teknikoetan eta profesionalen taldeetan, antzeko funtzioak edo arduraldia zuten kasuetan. Bigarren jarduera, berriz, beste Autonomia Erkidegoetako Haurrentzako Planak aztertzea izan da, ondoren horien egiturak eta edukiak aztertu eta Plana diseinatzeko irizpideak jasotzeko.

Agiri hau idazteko, beraz, bi zati egituratu dira: batetik, ebaluazioen (Haurrentzako Planaren eta berariazko ebaluazioen) emaitzarik esanguratsuenak aurkeztuko dira eta, bestetik, II. Plan honen edukia egituratu da. Horrela, bada, II. Plan honetan proposatutako jarraibideen, helburuen eta jardueren erreferentzia eta justifikazioa egindako ebaluazioa izango da, eta hori funtsezkoa da planifikazio prozesuetan.



II. kapitulua

Bizkaiko Haurrentzako I. Planaren ebaluazioa (1999-2004)



Haurrentzako I. Planaren ebaluazioan adierazten da helburuak %70 inguruan lortu direla; dena dela, burutzapenen ehuneko kopurua aldatu egiten da Planeko 14 egitarauetan edo azpiegitarauetan eta %44tik %100era artekoak daude. 14 egitarauetatik hamarrek %50 baino handiagoko ehunekoa lortu dute (seik %80 eta gehiagokoa). 14 egitarau horietatik lau bakarrik dira %50 baino gutxiagoko burutzapen-maila lortu dutenak.

Ikuspegi orokorrago eta kualitatiboago batetik ebaluazioak honela zehazten ditu bere garapenean lortutako **aurrerapen nagusiak**:

- Haurrentzako zerbitzuaren berrantolaketak: atal bakoitzean sailkatu dira funtzioak, arloko arduradunak ezarri dira, langile gehiago hartu da, etab.
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eta Gizarte Ekintza Sailaren arteko koordinazioa indartu eta hobetu da.
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean Egoitzako Harrera Atala sortu (funtzionalki haurren zerbitzuari atxiki eta langile gehiago jarri), horren bidez, zentroetan harrera egindako haurren eta nerabeen kontrola eta jarraipena bateratu da.
- Kasuaren koordinatzaile zeregina ezarri eta finkatu eta koordinatu gabeko kasu kopurua mugatu.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Haurren Zerbitzuen arteko funtzioen eta eskumenen definizioa argitu.
- Planaren hasierako espediente guztiak errebisatu, eguneratu eta bideratu.
- Prozesu hauek hobetu: harrera, balorazioa, orientazioa, erabakiak hartzea eta kasuen jarraipena ere hobetu Haurren Zerbitzu osoan.
- Egoitzako harreraren dauden adingabeen kopurua modu esanguratsuan murriztu.

- Zerbitzuan babeserako zenbait egitarau ezarri eta indartu: familietan parte hartzeko egitaraua, sexu gehiegikeri kasuetan parte hartzeko zerbitzua, familietan harrera egiteko sustapen taldea, ijito familietan parte hartzeko egitaraua, nerabeekin parte hartzeko egitaraua, etab.
- Familiako harrera sustatu, erakarketa kanpainak garatuta eta babeserako egitarauak finkatu.
- Familietan harreraren dauden adingabeen kopurua hazi.
- Nazioko eta nazioarteko adopzioarekin lotutako prozesuak sustatu eta ordenatu.
- Adingabekoen zentroak berrantolatzen hasi: Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zentro sarea zabaldu, behin betiko bihurtu, jokaera-arazo larriekiko adingabeentzako modulu berezia sortu, hitzarmenen finantzazioetan hobekuntzak eta zentro batzuk etxe txikiago bihurtu.
- Esku hartzeko eskuliburu bat egin parte hartzeko metodologiarekin; ondoren, onartu eta argitaratu.
- Beste erakundeekin (osasuna, hezkuntza, fiskaltza, Eusko Jaurlaritza, etab.) dauden koordinazio-foroak mantendu eta esku hartu.
- Haurren Zerbitzuan bertan talde-lana sustatu.
- Espedienteak kontrolatzeko eta informatizatzeko sistema hobetu.
- Gizarte Ekintza Saileko eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko prestakuntza-planak hobetu.

I. Planaren indarraldian hobekuntza eta aldaketa asko lortu da eta antolakuntzako eta egiturako funtsezko alderdietan ez ezik, artatutako haurren eta nerabeen egoeran ere ondorioak izan ditu.

I. Planean behar adina garatu gabeko alderdi orokorreari dagokienez, ebaluazio honen arabera hauek azpimarratu beharko lirateke:

- Planaren ebaluazioan jarraipena falta: ebaluazio-txosten bakarra dago eta ez da zazpigarren egitaraua garatu, bere helburua txostena egitea zen arren.
- Ez da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin Esku hartzeko eskuliburua egiten hasi.
- Zentro-sarearen berrantolaketa ez da behar adina garatu.
- Koordinatzerakoan eta gauzak argitze-rakoan zailtasun puntual batzuk Gizarte Ekintza Sailaren eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen artean.
- Beste administrazioekin eta erakundeekin koordinazio-foro egonkorak ez dira behar adina garatu.
- Atal batzuetan langileen gehiegizko mugimendua egon da.
- Prestakuntza-plan homogeneoa eta koherentea garatzeko eta bateratzeko gabeziak egon dira; plan horiek erakunde partaideak eta zentro-sare osoa hartu behar dituzte kontuan.
- Esku hartze egitarauan ebaluazio sistematikorik ez da egon.

Haurrentzako I. Plan honetako ondorioak beharrezko abiapuntua dira plan berria egiteko, beraz, hona hemen ondorio horiek:

- Haurrentzako I. Plan honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan haurrak babesteko sistemaren funtzionamenduaren hobetze-prozesua hastea; horren bidez modu esanguratsuan hobetuko da babestu behar diren adingabeei eta horien familiei eskaintako harrera. Zalantzarik ez dago haurrentzako zerbitzuan hobekuntza garrantzitsuak gertatu direla plana ezarri zenetik, beraz, oso tresna beharrezkoa, erabilgarria eta ezinbestekoa da gure zerbitzuko esku hartzearen kalitatea hobetu dadin.

- Adierazi eta eskertu beharra dago aurrerapen hau haurrak babesteko sistemako pertsona guztien (langile, teknikari, arduradun eta politikoki) lanari, ekarpenari eta ahaleginari esker lortu dela. Pertsona horiek nola Haurren Zerbitzukoak hala lankidetzan aritzen diren erakundeetakoak eta gurekin lana egiten duten erakunde edo elkarteetakoak dira: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoak, gizarte-heziketako eskuhartze taldeetakoak, fiskaltza eta sistema judizialekoak, Hezkuntzakoak, Osasun arlokoak, etab.

Ondorio hauek adierazten dute lortutako eta azaldutako emaitzen arabera I. Planeko aurreikuspenak ongi bete diren arren, sustatu, jarraitu eta, zenbaitetan, amaitu beharra dagoela funtsezko hiru arlotako ekintzak eta kontuan izan beharko direla Haurrentzako II. Plana egiterakoan:


- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako eta Zerbitzu Espezializatuetako zerbitzuen, baliabideen eta egitarauen arteko koordinazioa hobetu. Zeregin hau Eusko Jaurlaritzak gai honen inguruan hasitako proiektuarekin koordinazioan egin beharko da (Balora Proiektua).
- Haurren eta nerabeen beharretara egokitzen jarraitu egoitzetako harrera-dispositiboak.
- Ebaluazio-sistemak diseinatu eta ezarri, egitarauen eta baliabideen eraginkortasuna identifikatu ahal izateko.

Bete gabeko helburu hauek betetzetik abiatu behar du II. Plan honek, aurreko planaren garapenean lortutako aurrerapen handiak aitortuta. 2008-2011 Plan berria EAEn Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren etorkizunari buruz irekitako eztabaidaren ikuspegian sartu beharko da eta orain egiten ari diren lerro kontzeptualak eta proposamenak sartu beharko dira.



III. kapitulua

Beharren
ebaluazioaren
azterketa



Planifikazioaren bidez helburuak eta xedeak artikulatzearekin batera horiek lortzeko baliabideak ordenatzen dira. Aldaketa bat bilatzea da bere justifikazioa; aldaketa horiek helburuetan islatzen dira eta gainditu nahi diren gizarte-beharrei buruzkoak izaten dira. Plan guztiek aurrez beharrak aztertu behar izaten dituzte abiapuntuko egoera ebaluatzeko, xede izango diren irtenbideak irudikatzeko eta aldaketarako estrategiak eta jarduerak diseinatzeko.

Haurrentzako II. Plana 2008-2011 egiteko, aurrekoa (I. Plana 1999-2004) baloratzeaz gain, berariazko beharrak ere ebaluatu ziren, Plan berrian sartu beharreko premien eta lehentasunen azterketa eguneratu ahal izateko. Ebaluazio hau diseinatzeko ikuspegi parte hartzailea erabili zen, zerikusia zuten instantzien ikuspegiak jaso ahal izateko: profesionalenak, teknikoenak, administratiboenak, politikoenak, elkarte arlokoenak, etab.

3.1. METODOLOGIA

Erabilitako metodologiari dagokionez, *elkarrizketak* egin zitzaizkien kudeaketako maila desberdinetako arduradunei eta *eztabaida-taldeak* garatu ziren talde teknikoen ikuspegiak biltzeko edo antzeko funtzioak edo zereginak zituzten profesional-taldeenak jasotzeko. Guztira hemeretzi elkarrizketa egin dira eta bederatzi eztabaidatalde egon dira 2007ko otsailetik martxora. Honakoak izan dira:

Elkarrizketak:

- Foru Diputatua eta Gizarte Ekintza Foru Saileko Umeen, Emakumeen eta Ezinduen zuzendari nagusia.
- Haurren zerbitzuko burua.
- Harrera, Balorazio eta Orientazio Ataleko burua.

- Harrera, Balorazio eta Orientazio Ataleko arduradun teknikoak.
- Harrera eta Adopzio ataleko burua.
- Nazioarteko adopzioen arduradun teknikoak.
- Adopzio nazionalako eta familiako harre-rako arduradun teknikoak.
- Egoitzako harrerako arduraduna.
- Gizarte urgazpenerako foru erakundeko egoitzetako zuzendaria.
- Gizarte urgazpenerako foru erakundeko gerentea eta zuzendari laguntzailea.
- Adingabeen fiskala.
- Osasun arloko ordezkaria.
- Hezkuntza arloko ordezkaria.
- Agintzari elkarteak.
- Bizgarri elkarteak.
- Berriztu elkarteak.
- Adoptatzaileen elkarteak.
- Harrera egiten dutenen elkarteak.
- Iniziativa Gitana elkarteak.

Eztabaida-taldeak:

- Udal gizarte zerbitzuak (Bilbo, Barakaldo, Portugalete, Muskiz, Balmaseda, Leioa, Getxo, Basauri, Gernika, Durango eta Lea-Artibaiko Mankomunitatea).
- Gizarte-hezkuntzako esku-hartze taldeak.
- Zentroetako eta etxeetako zuzendariak.
- Harrera, Balorazio eta Orientazio Ataleko teknikariak.
- Harrera eta Adopzio ataleko teknikariak.
- Zentroetako eta etxeetako hezitzaileak.
- Inor gabeko atzerritar adingabeentzako egitarauetako zuzendari eta hezitzaile taldea.
- Haurren zerbitzuko administrazioko langileak.
- Haurren zerbitzuko aholkularitza juridikoko teknikariak eta aholkularitza juridikoko legelariak.

Garrantzitsua da azpimarratzea beharren ebaluazioan hobetu beharreko alderdiak daudela, beharrak hautemateko prozesuari dagokion legez. Beraz, ebaluazioan urte hauetako hobekuntzak eta sistemako puntu indartsuenak ere ikus daitezkeen arren, bere helburua da sistemako puntu ahul guztiak nabarmentzea, ondoren horien lehentasuna eta Haurrentzako II. Planean sartzeari bidezkoa den ikusteko. Azalduko diren ebaluazio-emaizak ebaluazioan parte hartutako pertsonen eta erakundeek azalduko ahultasunetan eta beharretan geratu dira, nagusiki. Eduki hauei esker, II. Planeko lerro estrategikoen eta helburuen lehentasuna eta egokitasuna baloratu ahal izan dira.

Informazio ugari bildu denez eta edukiak oso alderdi desberdinei buruzkoak direnez, horiek azaltzeko argibideren bat behar da. Horregatik, emaitzarik garrantzitsuenak aurkezteko AMSA (Ahuleziak, Mehatxuak, Sendolekuak eta Aukerak) eskema erabiliko da, jasotako funtsezko puntuak ordenatu ahal izateko. AMSA metodoko kontzeptu bakoitza labur-labur definituta dago ondoren:

- **Ahuleziak:** erakundearen hazkunderari, proiektioari, sinesgarritasunari eta garapenari kalte egiten dioten erakunde barneko aldagaiak, ezaugarriak edo egoerak; erantzuteko eta lehiakorra izateko gaitasuna gutxitzen dute.
- **Mehatxuak:** inguruko gertaerak, aldagaiak eta ezaugarriak, erakundearen etorkizuneko funtzionamenduan eragina izan dezaketenak, egungo jarduera edo lehiakortasun bolumena txikituta edo mugatuta.
- **Sendolekuak:** erakundearen hazkundera, proiektioa, sinesgarritasuna eta garapena oinarritzeko erakunde barneko aldagaiak, ezaugarriak edo egoerak; erantzuteko eta lehiakorra izateko gaitasuna errazten dute.
- **Aukerak:** inguruko gertaerak, aldagaiak eta ezaugarriak, erakundearen etorkizuneko funtzionamenduan eragina izan dezaketenak, egungo erantzuteko gaitasuna edo lehiakortasuna hazita edo erraztuta.

3.2. BEHARREN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Ebaluazioko ondorioak aurkezteko, ordena bati jarraituko diogu; hasteko, alderdi positiboak jarriko ditugu (Sendolekuak eta Aukerak) eta gero beharren adierazleak aztertuko ditugu (Ahuleziak eta Mehatxuak). Berrito diogu hautemandako Ahuleziak azaltzea izango dela aurkezpenaren lehentasuna, horietan azalduko egoerak hobetzeko balizko helburuak eta jarduerak aztertu ahal izateko.

A. AUKERAK

Lehen definitu dugun bezala, egitarauak eta gizarte politikak garatu diren inguruko alderdiak dira Aukerak eta alderdi horiek eragin positiboa izan dezakete besteen garapenean. Gizarteko aldatetarik izaten dira edo beste zerbitzu edo egitura batzuetako egoera berriak; eta egitarauak hobetzeko erabili daitezke. Oso garrantzitsuak dira, inguruko elementu positiboak kontuan har baitaitezke eta geureganatu ere bai. Hautemandako garrantzitsuenak hauek dira:

- Bizkaiko Haurren Babes-sistemarekiko hobekuntza orokorra hauteman da teknika-rien eta arduradunen artean eta beste sistema batzuetan ere bai: judizialean, eskolakoan, osasun arlokoan, etab.
- Inor gabeko atzeritar adingabeen profila hobetu da, kasu gatazkatsu gutxiago dago eta lanerako eta gizarteratzeko motibazio gehiago dute.
- Haurren arloan elkarte sarea zabaldu da ongi garatutako esku-hartze ekimenekin eta Haurren Zerbitzuarekin ongi bat eginda.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuak, Familiaren eta Haurren arloan baliabideak eta zenbait ekimen garrantzitsu garatuta.
- Hezkuntza-sisteman zenbait egitaraua daude abian haurren eskubideei buruz, eskolara ez etortzeari buruz, eskolatzeari buruz eta jarrera arazoari buruz; era berean, inor gabeko atzeritar adingabeentzako baliabideetan malgutasuna dago.
- Eusko Jaurlaritzaren lege ekimen eta garapen berriak; zenbait zerbitzutan adostutako estandarrak lortzeko aukerak izan daitezke.

- Familien kontzientziazioa seme-alabak hezteko arazoei buruz eta kontseilu profesionala eta trebakuntzakoa batera joatearen erabilgarritasuna (arazoa komunikabideetan, telebistako egitarauetan, liburuetan... agertzen den heinean).
- Gainerako Autonomia Erkidegoetan Familiaren eta Haurren esparruan esku hartzeko eskuliburu eta gida kopurua nabarmen hazi da; prozedurak estandarizatzeko giroa da nagusi eta funtsezko irizpideetan adostasuna dago.
- Eskura dauden kudeaketa-tresnen garapena aprobetxatu, hala nola, Familia eta Haurrak Sistemako kudeaketa integraleko aplikazio informatiko handiak.
- Kudeaketaren kalitatea gizarte-zerbitzuen testuinguruan sartzeko beharraz onartu dira administrazio eta gobernu kanpoko erakunde asko.
- Babesik gabeko kasuetan esku hartzeko gidaliburu bat dago Zerbitzu Espezializatuentzat, eta teknikariek eta arduradunek modu positiboan baloratu dute.
- Haurren alorrean topagunerako foro bat jarri da abian, Udal Gizarte Zerbitzuekin.
- Gizarte-hezkuntzako lana asko hedatu da erkidegoan Gizarte-hezkuntzan esku hartzeko taldeen bidez.
- Berariazko egitarauen hedapen handia: ongi baloratu dira, adingabeen behar jakinekin koherenteak dira eta kasu batzuetan bereziki berritzaileak dira eta zerbitzuari ongi lotuta daude.
- Kanpotik kudeatutako zerbitzuen balorazio ona, hala nola, Besteren familian harrera egitearena, Familietan esku hartzeko egitarauena, jakinarazpenena, leku-aldatzeena, nazioarteko adopzioetan egokitasunak baloratu dira, etab.
- Lerro berritzaileen aurrerakuntza oso garrantzitsua, lehen harrerako zentroen kontzeptu kendu baita egoitzazko harrerako oinarritzko sarean.
- Aurrerapen garrantzitsua kasuaren koordinatzailearen zereginari dagokionez, familia berriro biltzeko lana egiten baitu.
- Adopzioa eskatu dutenentzako presakuntza-egitaraua jarri abian.

B. SENDOLEKUAK

Zerbitzuen eta jardueren erantzun-gaitasuna eta hobekuntzak baliabideen alderdi batzuetan eta erakundean oinarritu behar dira, eta horiek daude sendolekuetan. Beharren ebaluazioaren xedea hobetu beharreko alderdiak hautematea zen arren, jasotako alderdi askok eta alderdi garrantzitsuek aipatzen dituzte azken urteetan egindako hobekuntzak, Haurrentzako I. Planeko ebaluazioko ondorioekin bat. Nabarmenenak honakoak dira:

- Haurrentzako I. Plana egin da; modu positiboan ebaluatu da eta artatu beharreko gai nagusiak zein diren ikus daiteke.
- Azken urteetan egituraren, baliabideetan eta funtzionamenduan aurrerapen handia egin da Plan horren eta gehitutako bestelako ekimen batzuen arabera.
- Taldean lanerako giro ona izan da.
- Profesionalak trebatzeko aukerak ongi hauteman dira.
- Giza baliabideei dagokionez, ongi hornituta egon da; I. Planean ezarritako kasukarga izan dute.
- Inor gabeko atzerritar adingabeak artatzeko ongi definitutako politika, baliabide eta aurrekontu ugariarekin.

C. MEHATXUAK

AMSA ebaluazio-ereduan mehatxuak inguruko alderdiak dira eta alderdi horiek egitarauetako erantzunen bolumena eta eraginkortasuna mugatu dezakete. Aukerak legez, Mehatxuak ere planifikatzen diren zerbitzuetatik kanpoko faktoreak dira, baina kontuan hartu behar dira Planeko estrategiak eta jarduerak inguruko zailtasun horietara egokitzeko.

- Familietan hezkuntza-irizpideen eta gurusoeren zereginaren krisia; kontrol-gabezia sortzen dute eta seme-alaben jarrera-arazoei aurre egiteko gabeziak ere bai.
- Hamalau urtez azpiko adingabeko arauhausleak gehitu, adin hauetako elkarbizitza-arazoak judizializatzeagatik eta adingabeak arau hausetatik egiten lehenago hasteagatik.

- Inor gabe dauden adingabe atzerritar kopurua hazi; kuantitatiboki eta kualitatiboki pronostikatzeko zaila (jatorriak aldatu, jarrerak, adinak, etab.).
- Inor gabe dauden adingabe atzerritarren gaia planifikatzeko konplexutasuna, nazioarteko harreman politiken, barne politiken,... mende dagoelako.
- Seme-alabek gurasoan aurka egindako indarkeria kasuak ugartu.
- Gazteen sexualitatearekin lotutako arazoak ugartu, nola nahi gabeko haurdunaldiei dagokienean hala sexu bidezko gaixotasunei dagokienean.
- Adopzio kasuetan nerabezaroan esku hartzeko kasuak agertu dira, eta datozen urteetan kasuak ugartzeko aukera handia dago nazioarteko adopzioetan.
- Toki administrazioek ulertzeko zailtasunak hauteman dituzte.
- Udal batzuek egitarau jakinak barreiatu egin dituzte, eta badaiteke lurralde osorako diseinatutako estrategiekin bat ez etortzea; ondorioz, haurren politikan Bizkaiko Foru Aldundiak buru izateari utziko lioke.
- Famili eredua aldatu denez, balizko harreman familiarak urritu egin dira.
- Familiako eta laneko bizitza batzeko gero eta zailtasun handiagoak.
- Eusko Jaurlaritzako legediak esku hartzeko baldintzak eta eskakizunak ditu; eguneratzeko ahalegin handiak egin beharko dira.

D. AHULEZIAK

Aurrez emandako definizioan esaten den legez, ahuleziak erakundearen alderdiak dira, ez dira ingurukoak eta erantzun eraginkorren hazkundera eta erantzunak emateko gaitasuna kolokan jartzen dute. Zerbitzuen eta egitarauen kudeaketaren mende dauden puntu ahulak dira (inguruaren mende dauden mehatxuak ez bezala). Ebaluazio honen helburu nagusiak dira; izan ere, hobetzeko behar hauek Haurrentzako II. Planean sartuko diren aldaketen helburuak izango dira.

Ebaluazio-prozesuko partaideek hautemandako ahalik eta ahultasun gehien jasotzen saiatu garenez, ez da garrantzitsuenetako bat bera ere

alboan utziko, eta ondorioak aurreko ataletakoak baino luzeagoak dira. Ebaluazioaren arabera hobetu beharreko gaien multzoa agertzen da, baina horrek ez du esan nahi denek garrantzi edo lehen-tasun berdina dutenik. Ebaluazioak eduki hauek esplizitu bihurtzeko gaitasuna ematen du, eta Planelako lerro estrategikoak, helburuak eta jarduerak erabakitzeke azterketako elementuak dira.

Aurkezteko, edukiaren funtsezko alderdien arabera sailkatuko dira, aipatzen dituzten kudeaketarekin eta esku hartze motekin lotuta.

1. ZERBITZU ETA KUDEAKETA EGITURAK

1.1. Udal gizarte zerbitzuak

- Udal gizarte zerbitzuen integrazioa hobetu behar da funtzioak ongi definituta, baita Familia eta Haurren esku hartze-sistemara egoki lotutako prozesuak eta protokoloak ere.
- Foru Aldundiak planifikazioan eta Udal Gizarte Zerbitzuentzako babesean zuen buruzagitzan galera dago.

1.2. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea

- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak eta Haurren Zerbitzuak eskumenak hobeto definitu beharra daukate egoitzazko baliabideei eta horien sarearen kudeaketari dagozkionean.

1.3. Egitarauen kudeaketa

- Kasuak eta prozesuak kudeatzeko aplikazio informatiko eraginkorren beharra.
- Erakunde pribatuek berriazko egitarau ugari garatzen dutenez, horien kudeaketa definituagoa falta da, batez ere horien eraginkortasuna ebaluatuko duena.
- Inor gabeko atzerritar adingabekoentzako zerbitzuak indartzeko eta egituratzeko beharra, kasu ugari eta konplexuak dardelako.
- Berezko zerbitzu juridikoa falta da, administrazio aholkularitzarako eta epaitegie-tan aurkezteko.
- Orokorrean egitarauak eta kalitatearen kudeaketa ebaluatzeke mekanismoak ezartzeko beharra.

- Foru Aldundiaren lurraldean Familia eta Haurrei buruzko gai garrantzitsuen inguruan lanik ez.

1.4. Kasuen eta giza baliabideen kudeaketa

- Adingabeekin esku hartzeko prozesuetan tramite burokratikoak azkartzeko beharra (harrera eta adopzio kasuetan bereziki) eta foru aginduen hizkuntza erabiltzaileei eta horien ulermen mailari egokitzeko beharra.
- Haurren Zerbitzuko teknikariek gainbegiratzeko lana sartzeko beharra; presetakuntzako helburuak eta laguntza pertsonal eta teknikoak izan beharko ditu.
- Ataletan indartze-koordinatzaileak ez.
- Teknikarien baja kasuetan pertsonalaren kudeaketa-erantzunean arintasun falta eta pertsonala mugitzeko edo estali beharreko hutsuneetarako arazoak.
- Ataletako taldeko lana hobetzeko estrategiak planteatu.

1.5. Beste sistemekin koordinazioa

- Koordinazio-estrategiak hobetzeko beharra eta baterako erantzunak egitekoa, beste sistemekin banatutako arazoetan: hezkuntza, osasuna, judiziala, etab.

2. EGOITZAKO HARRERA

- Esku hartzeko gida garatzeko beharra, artatu beharreko adingabeen egungo beharrei egokitutako baliabide-sare anitza definituko duena, baita kalitatezko arretarako oinarrizko prozesuak eta beharrezko protokoloak eta tresnak ere.
- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zentro sarea hobetzen jarraitu, baliabideak eta hornikuntzak egokituta.
- 0-3 urte artekoentzako zentro bat, haur kopuru handiarekin; familiako harrera behar lukete.
- Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak artatzeko zentroak diseinatu eta eguneratu, kopuru handia eta dibertsifikazio beharrak kontuan hartuta.
- Egoitzako harreratik helduarora igarotzeko prozesuetan laguntzak areagotzeko beharra, bizitza independenterako pres-

tatzeko proiektuak ugaritzeko beharra eta bizitza independenteko zentro gehiago izatekoa ere bai.

3. FAMILI HARRERA

- Harrera motak dibertsifikatzeko beharra: premiazkoak, profesionalizatuak, aste buruetakoak eta harrera sinpleak luzatu.
- Famili Harrerako Lanerako Gida baten beharra.
- Haur txikientzako lehentasunezko neurri legez harrera sustatzeko premia, zentroetan harrera egiteko beharra kenduta.
- Familia zabalean harrera egindakoei laguntzeko berariazko egitaraurik ez, harrera gehienak hala izan arren eta arrisku faktoreak izan; trebakuntza litzateke beharrezko abiapuntua.
- Famili harreratik helduarora igarotzeko prozesuak planifikatzeko beharra.

4. ADOPZIOA

- Adoptatu ondorengo laguntza egitaraurik ez, jarraipenaz haratagokorik.
- Adopzio berezien egitaraurik ez.
- Jatorria aurkitzeko jarduerak kokatzeko beharra eta argi ezarritako egitarau zehatz baten bitartekaritza.

5. BERAIAZKO EGITARAUAK ETA BALIABIDEAK


- Gizarte-hezkuntzako esku hartze taldeen funtzionamendu eredia eguneratzeko eta definitzeko beharra, behar berriei egokিতuta eta esku hartze familiarreko egitarauekin koordinatuta.
- Etxeko indarkeriaren edo gurasoen kontrolerik kanpoko adingabeen aurrean argi ezarritako eta planifikatutako erantzunen beharra erkidegoko egitarauetan, garaiz hautemateko mekanismoak sartuta.
- Haurren Zerbitzuko espazioan haurrekin lanean aritzeko egokitu gabeko espazioak (jostailuak behar dituzten aretoak, etab.).

Egindako ebaluazioen eta ezarritako lehentasunen analisiaren arabera egin da ondoren zehaztu den Haurrentzako II. Plan hau.



IV. kapitulua

Planaren lerro estrategikoak




1. Babes sistemaren egitura diseinatu eta indartu maila orokorrenetik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Espezializatuen funtzionamendu koordinatua bermatuta eta euren kompetentziak eta funtzioak argi definituta.
3. Inguru berean aurrea hartzeko eta esku hartzeko egitarauak lehentasuna izango dute, lurralde osoan jada finkatuta dauden gizarte-hezkuntzako egitarauen egitura aprobetxatuta.
4. Famili harrerarako egitarauak sustatu haurrak eta nerabeak familiaratik bereizten diren kasuetan lehentasunezko baliabideak izateko.
5. Tradizio historiko handieneko egitarauetan baliabideak eta prozedurak eguneratu, hala nola egoitza harreran edo gizarte-hezkuntzako esku hartze egitarauetan; izan ere, ibilbide luzea dutenez, esku hartzeko behar berrietara egokitzeko prozesua behar baitute.
6. Dauden egitarauak indartu, adingabeen eta horien familien beharrei modu eraginkorrean erantzuteko, orokorrean egitarau horien funtzionamendua oso ongi baloratzen baita.
7. Haurrak babesteko sistemak eraldatzen ari dira erronka berrien eraginez eta epe ertainean eta luzean erronka horientzako erantzunak planifikatu behar dira; horretarako, baliabideak eta inbertsioak ordenatu behar dira epe luzera.
8. Egitarauen eta esku hartzeen kalitate, planifikazio eta ebaluazio printzipioetan oinarritutako kudeaketa; funtsezko prozesuen eta egitarauen eskuliburuak edo esku hartzeko gidak sortu ahal izango dira horrela, baita ebaluazio-diseinu integralak ere.
9. Bestegizarte-sistema (osasuna, hezkuntza, justizia, etab.) batzuetako baliabideekin koordinazioa, aprobetxamendua optimizatzeko eta haurren eta familien ongizatea lortzeko lan eraginkorragoa egiteko.
10. Hirugarren sektorearen zeregina indartu, irabaz asmorik gabeko elkardeen eta erakundeen kooperazioa eta parte hartzea indartuta familien eta haurren egitarauak garatzean.



V. kapituluu

Planaren garapena



Jarraian Planeko helburu orokorrek daude eta ondoren berariazko helburuetan banatuko dira, jarduerak, aldia eta ebaluaziorako adierazleak sartuta. Adierazle horiek egiteko, egitarauen ebaluazioko hiru elementu mota esanguratsu jarri dira oinarrian:

- *Produktuen adierazleak* ekintzen helburu materialak, agiriak edo bestelako emaitza materialak egitea baldin bada. Arrakastaren irizpideetako bat izango da jarduerak amaitu izana eta elementu hauek sortu izana (txostenak, protokoloak, gidak, proiektuak, ikastaroak, batzordeak eratu, etab.).

- *Prozesuen adierazleak* ekintza desberdinetan egindako jarduerak monitorizatzeko, emaitza dena-delakoa izanda ere. Helburuak lortzeko erabili den ahalegin-maila ebaluatzeko balioko dute eta zenbait jarduera erregistratuko dira horretarako: bilerak, koordinazio harremanak, horietan zerikusia duen profesional kopurua, prozesu batzuetan igarotako denbora, etab.

- *Kalitatearen adierazleak*, zerikusia duten aldeek balorazioak egin ditzaketan kasuetarako. Garatutako jardueren egokitzen- eta berezitasun-mailak baloratu izango dira, hala nola, prestakuntza-ikastaroen kalitatea ebaluatuko da.

HELBURU OROKORRAK

1. HELBURU OROKORRA. Haurrak babesteko sistema optimizatu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Zerbitzu Espezializatuaren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetuta eta bultzatuta, arreta berezia jarrita Bizkaiko Lurralde Historiko osoan arrisku eta babes-gabezia egoerak baloratzeko irizpide bateratuan.

2. HELBURU OROKORRA. Haurren Zerbitzuko barneko alderdiak, antolakuntzazkoak, metodologikoak eta parte hartzeak hobetu; bereziki garrantzitsua da Haurren Zerbitzuaren eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen artikulazioa mantentzea, praktikan erakunde bat bakarra balira bezala aritzeko.

3. HELBURU OROKORRA. Famili harreraren garapenarekin jarraitu, banaketa kasuetan babes emateko lehentasunezko neurri gisa; lehentasun berezia izango du adingabeko haurren kasuan eta harrerako familiei beharrezko babes bermatzeko prozedurak jarraituko dira.

4. HELBURU OROKORRA. Adopzio prozesuak garatu kalitate-bermearekin eta haustura eta gatazka arriskuak minimizatuta.

5. HELBURU OROKORRA. Egoitza harretarako dispositibo multzoa berrantolatzen jarraitu, haurren eta nerabeen behar anitzei erantzuna emateko gai den sarea osatu dadin, kalitatezko printzipioetan oinarritutako kudeaketa bateratuarekin.

6. HELBURU OROKORRA. Egitarauak eta esku hartzeak ebaluatzeko kultura garatu, haurren eta familien arretan etengabeko hobekuntzarako oinarrizko irizpide gisa.

7. HELBURU OROKORRA. Eskura dauden egitarauak eguneratu, indartu eta sortu, dagokionean, haurren eta familietan sortzen ari diren behar berriei erantzuteko.

8. HELBURU OROKORRA. Beste sistema eta zerbitzuekin jardueren koordinazioa hobetu.

1. HELBURU OROKORRA. Haurrak babesteko sistema optimizatu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Zerbitzu Espezializatuaren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetuta eta bultzatuta, arreta berezia jarrita Bizkaiko Lurralde Historiko osoan arrisku eta babes-gabezia egoerak baloratzeko irizpide bateratuan.

JARDUERAK	ADIERAZLEAK	ALDIA
1.1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Zerbitzu Espezializatuak elkarren egiturak, funtzioak eta baliabideak hobeto ezagutu.		
A. "Prestakuntzako etengabeko gela" delakoaren (Saila-Eudel hitzarmena) markoan informazioarako eta kontrasterako bilerak antolatu zonaka Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Zerbitzu Espezializatuaren artean.	- Urteko bilera kopurua.	2008-2011
B. Oinarrizko GZk proposatutako prestakuntza-ekimenetan parte hartu eta bultzatu.	- Urteko bilera kopurua.	2008-2011
C. Bien baterako prestakuntza beharrak ezagutu berriazko azterketa baten bidez.	- Prestakuntza-beharren txostena. - Baterako prestakuntza plana.	2008-2009
D. "Prestakuntzako etengabeko gelarekin" lankidetzan aritu oinarrizko eta espezializatuaren profesionalentzako baterako prestakuntza-plana diseinatzeko eta burutzeko haurren eta nerabeen babesari buruz.	- Urteko prestakuntza-ekintza kopurua. - Prestakuntzaren kalitatearen ebaluazioa.	2008-2011
1.2. Esku hartzeko eta koordinatzeko metodo eta tresna osagarriak ezarri.		
